

EUSKO LEGEBILTZARRA - EUSKALTZAINDIA

Eusko Legebiltzarrari egindako bisitaldi ofiziala

1998ko uztailearen 28an Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak bisitaldi ofiziala egin zion Eusko Legebiltzarrari, Parlamentu Mahaiak, Leizaola jauna buru, hartu zuelarik. Bisitaldiaren helburua bi erakundeon arteko harremana eta elkar-laguntza bultzatzea zen. Horretarako, ekitaldi horren baitan, Euskaltzaindiak proposamen zehatz bat luzatu zion Legebiltzarrari, bi erakundeon biblioteketan zaintzen den ondare zahar edo berezia hitzarmen baten bidez digitalizatzeko, bildutako guztion arreta eta begirunea jasoz. Bereziki Leizaola jaunak atsegin haundiz jaso zuen proposamena, haren alde garbiki mintzatu zelarik. Edonola ere, gaiari dagokion segida ematea erabaki zen.